



**AGINDUA, 2021EKO OTSAILAREN 17KOA, EKONOMIA ETA OGASUNEKO SAILBURUARENA, EKONOMIA ETA OGASUN SAILAK 2021. URTEAN EMATEKOAK DITUEN DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEN DUENA.**

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1. artikulua honako hau ezartzen du oinarriko legeriaren izaerarekin: *«Administrazio publikoetako organoek edo dirulaguntzen ezarpena proposatzen duen edozein erakundek alde zuzenetik zehaztu beharko dituzte, dirulaguntzen plan estrategiko batean, dirulaguntza horiek aplikatzean lortu nahi diren helburu eta ondorioak, baita horiek lortzeko epea, aurreikusitako kostuak eta haien finantzatzeko iturriak ere; betiere, aurrekontu-egonkortasunaren helburuak beteko direla bermatuta».*

Ogasun eta Ekonomia Sailak, horrenbestez, eskatutako plana egin du, artikulua horrek zehaztutako edukiekin eta Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 9. artikulua arabera sail honi dagozkion egitekoetan eta jardun-arloetan oinarrituta (18/2020 Dekretua, irailaren 6koa, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen). Hori horrela, 2021ean Ekonomia eta Ogasun Sailean dirulaguntzak emateko aurreikuspena duten honako organo hauen dirulaguntzak biltzen ditu Planak:

- Finantza Politikako Zuzendaritza.
- Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Hala, ikuspegi orokor bat eskaintzeko, efikazia eta efizientzia hobetzeko, eta publikitatea eta gardentasuna errazteko, Plan honek 2021eko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Nagusiak onartzeari buruzko otsailaren 11ko 1/2021 Legeak xedatutakoak ere hartu ditu kontuan.

Horregatik, Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen ekainaren 13ko 168/2017 Dekretuak ematen dizkidan eskumenei jarraikiz (dekretu horrek oraindik ere indarrean jarraitzen du, irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren xedapen iragankor bakarrean ezarritakoaren arabera), honako hau

**EBAZTEN DUT:**

**Lehenengoa.** Ekonomia eta Ogasun Sailaren 2021. urterako dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea (eranskinean dator).

**Bigarrena.** Plana Ekonomia eta Ogasun Sailaren webgunean argitaratu beharko da, «Planak eta Proiektuak» atalean, bai eta ordenamendu juridikoan informaziorako eta gardentasunerako aurreikusitako tresnetan ere.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 17a

EKONOMIA ETA OGASUNEKO SAILBURUAK.  
PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE

**ERANSKINA**  
Ekonomia eta Ogasun Sailaren 2021 urterako dirulaguntzen Plan  
Estrategikoa

**I- Sarrera**

Plan hau sail honen politika antolatzeko tresna gisa sortu da, eta helburua du erabilera publikoko edo gizarte-intereseko jarduerak sustatzea edo xede publikoren bat lortzeko bultzada ematea, dirulaguntzak emanez.

Nabarmendu beharra dago planak izaera programatikoa duela, eta, beraz, edukiak ez duela ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen. Izan ere, plana eraginkorra izan dadin, hainbat dirulaguntza-lerro gauzatu beharko dira, ekitaldiko aurrekontu-baliabideak kontuan harturik, besteak beste.

Plan hau prestatzeko, lortu nahi diren interes publikoak aztertu dira, eta 2021ean interes publiko horiek lortzeko izango diren baliabideekin alderatu. Horrela, gure sailaren jardute-eremuan eraginkortasuna eta efizientzia indartzea, eta gardentasuna sendotzea bermatuko dugu.

Horregatik guztiagatik, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak Dirulaguntzen Plan Estrategiko hau egin du, 38/2003 Legean ezarritakoaren ildotik, eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak Dirulaguntzen Plan Estrategikoei buruz emandako 01/15 Zirkularreko jarraibideak oinarri hartuta.

**II. Planaren eremu objektiboa, instituzionala eta iraupena.**

Ekonomia eta Ogasun Sailak bere eskumenak erabiliz kudeatzen dituen dirulaguntzak biltzen ditu plan honek. Eskumen horiek 18/2020 Dekretuko 9. artikuluan daude jasota, eta honako alor hauei buruzkoak dira: finantza-politika eta finantza-erakundeekiko harremanak, berme-emateak, aseguruaren bitartekotza-jarduera kontrolatzea, gizarte-aurreikuspeneko erakundeak eta Europako kohesio-politika.

Dirulaguntza kontzeptuaren barruan, Planak 38/2003 Legearen 3. artikuluan jasotzen diren gauzazko laguntzak biltzen ditu, adibidez, sariak (onuradunak aurretik eskatu gabe emandakoak salbuetsita), eta eskatzaileak betetako jarduerak aintzat hartuta ematen diren beste zenbait laguntza.

Denbora-tarteari dagokionez, Planak aribideko 2021. urterako aurreikuspenak jasotzen ditu.

**III. Planteatzen diren helburu nagusiak.**



Sail honek askotariko helburuak bete nahi ditu sustapen-jarduerarekin, aipatutako 24/2016 Dekretuak esleitutako eskumen-eremu desberdinak kontuan hartuta.

#### - Borondatezko gizarte-aurreikuspena sustatu eta bultzatzea

Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko otsailaren 23ko 5/2012 Legearen 78. artikuluari jarraikiz, Eusko Jaurlaritzak sustapen- eta promozio-ekintzak aginduko ditu helburu honekin: borondatezko gizarte-aurreikuspenaren inguruko kontzientzia zabaltzea herritarren artean eta, bereziki, enpresen, langileen eta gizarte-eragileen artean. Xede hori betetzeko asmoz, hainbat lankidetzaprograma gauzatzea proposatuko da unibertsitateekin, sindikatuarekin, patronalen elkarteekin eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko sektorearekin lan egiteko. Bestalde, otsailaren 23ko 5/2012 Legearen 75. artikulua ezartzen duenari jarraikiz, federazioei honako funtzio hauek dagokie, besteak beste: aholkularitza eta laguntza ematea arlo juridiko-fiskalean, kontabilitatearen arloan, arlo ekonomiko-finantzarioan eta teknikoan, bai eta interes orokorreko beste edozein arlotan ere; eta era berean, borondatezko gizarte-aurreikuspena sustatu eta horren gaineko prestakuntza bultzatzea ere federazioei dagokie.

Horregatik, 2021. ekitaldirako Euskadiko aurrekontu orokorrekin dirulaguntza izendun bat emango diote Euskadiko BGAEen Federazioari, federazioak gizarte-aurreikuspen osagarria sustatzen eta jendarteratzen betetzen duen lanak eragindako gastuak ordaintzeko, bai eta gai horri buruzko prestakuntza-ikastaroak antolatu eta emateko lanen gastuak ordaintzeko ere (aurrekontu orokor horiek otsailaren 11ko 1/2021 Legearen bitartez onartu ziren).

Era berean, 1/2021 Legearen partida bana aurreikusten da honako hauentzat: Pentsioen behatokia/Gizarte-aurreikuspen osagarriko plana, eta Gizarte-aurreikuspen osagarria sustatzeko plana.

Bestalde, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko otsailaren 23ko 5/2012 Legeak borondatezko gizarte-aurreikuspeneko lehentasunezko erakundeak arautzen ditu. Erakunde horiek pentsio osagarri nahikoak eratzeko moduko estandar egokiak izango dituzte, eta, izan ere, horiek izango dira Finantza Politikako Zuzendaritzak sustatu nahi dituen BGAE modalitateak. Horren arabera eta abenduaren 12ko 252/2006 Dekretua oinarri harturik, enplegu-modalitateko BGAE berriak eratzeko laguntza eman nahi da (252/2006 Dekretua, abenduaren 12koa, borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen bidez gauzatu diren gizarte-aurreikuspen osagarriko sistema jakin batzuk ezartzeko laguntza ekonomikoak arautzen dituena). Laguntza horien helburua da aipatutako arauen babesean eratzen diren aurreikuspen-sistemak eratzeko eta martxan jartzeko gastuak ordaintzen laguntzea, bai eta horien aurreko gastuak ere; eta, era berean, zuzeneko laguntza emango zaie erakunde berrira edo gizarte-aurreikuspeneko plan berrira sartzen diren bazkideei.

Azkenik, Euskadin Gizarte Aurreikuspen Osagarria sustatzeko lanen barruan, Gizarte Aurreikuspenari buruzko Oinarrizko Ikastaroa antolatzea komeni dela ezarri da.

- Aseguruen bitartekaritza-jarduera sustatzea eta garatzea

Euskal Autonomia Erkidegoko aseguruaren banaketaren jarduera bultzatu nahi da. Horretarako, Sail honek aseguru- eta berraseguru-banatzailen eta jarduera horretan parte hartzen duten gainerako pertsonen prestakuntza babestuko du, bai lanbidean jarduteko administrazio-baimena eskuratzeko beharrezkoak diren prestakuntza-betekizunei dagokienez, bai dagoeneko dihardutenei nahitaezko etengabeko prestakuntza emateari dagokionez. Prestakuntza-premia horiek berariaz aurreikusita daude otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege Dekretuan, zeinak aseguru eta berraseguru pribatuen banaketari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko urtarrilaren 20ko 2016/97 (EB) Zuzendarauaren transposizioa egiten baitu, eta berariaz aurreikusten baitu etorkizunean erregelamendu bidez garatuko dela prestakuntzaren arlo zehatz hori. Aldi baterako, eta harik eta 3/2020 Errege Lege Dekretuak prestakuntzaren alorrean garatuko duen araudia onartu arte, indarrean jarraituko dute honako arau hauek: 26/2006 Legea, Aseguru eta Berraseguru Pribatuen Bitartekaritza buruzkoa, gaitasun profesionalen arloari dagokionez; eta 2011ko otsailaren 18ko Ebazpena, Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiarena, betekizunak eta oinarritzko printzipioak ezartzen dituena aseguru-bitartekarietzako, berraseguru-artekarietzako eta aseguru eta berraseguru pribatuen bitartekaritzan zuzenean parte hartzen duten gainerako pertsonentzako prestakuntza-programetarako. Aurreko ekitaldietan egin bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko Aseguru Bitartekarien Kontseiluak antolatzen eta ematen du prestakuntza hori (kontseilu hori Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko aseguru-bitartekarien elkargoek osatzen dute), eta, helburu horrekin, 2021. ekitaldiko Euskadiko aurrekontu orokorretan gastu horiei aurre egiten laguntzea aurreikusi da, organo horri dirulaguntza izendun bat emanez.

- Euskadiko enpresa txiki eta ertainen finantzaketa-baldintzak hobetzea.

Helburu horrekin, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak hitzarmenak sinatu izan ditu urtero hainbat finantza-erakunderekin, finantza arloan eskumenak dituen sailaren bitartez. Hitzarmenok enpresa txiki eta ertainei zein profesionali bermeak errazago emateko izan dira, eta administrazioak bere gain hartu du abala jaso duten enpresa eta autonomoek porrot egiteko arriskuaren zati bat.

2020ko erabakirik garrantzitsuena martxoaren 31ko 50/2020 Dekretua onartzea izan zen, eta dekretu hori, ondoren, maiatzaren 19ko 67/2020 Dekretuak aldatu zuen, enpresa txiki eta ertainak, banakako enpresaburuak eta profesional autonomoak finantzatzeko 2021erako laguntza-programa bat garatzen duenak, COVID-19aren ondoriozko eragin ekonomikoari aurre egiteko. Dekretu horren esparruan, 14 hitzarmen formalizatu ziren finantza-erakundeekin eta 1 Elkargi EBB sozietatearekin. Hitzarmen horiei esker, 8.000 enpresak baino gehiagok finantziazioa eskuratu ahal izan zuten baldintza onuragarrietan, eta gutxi gorabehera 725 milioi euro inguruko finantzaketa-bolumena estali zen.



Covid-19aren pandemiak eragindako osasun-krisiak bere horretan dirau, eta horrek eragina du Euskadiko enpresa-sarean. Hori dela eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak 2021ean ere laguntza ematen jarraitu nahi die enpresa txiki eta ertainei eta enpresaburu autonomoei, baldin eta, COVID-19aren ondorioz, haien eguneroko jardueran eragina izan badute. Hortaz, finantzaketa baldintza onetan eskuratzeko aukera emango die. Alde horretatik, ekitaldi honetan laguntza-programa berri bat antolatzeko dekretu bat onartzea aurreikusi du. Dekretu horrek ETEen eta enpresaburu autonomoen finantzaketa-kostua murrizteko dirulaguntza barne hartzen du.

Laguntza-programa berri hau bideratzeko, hitzarmenak sinatuko dira finantza-erakundeekin eta elkarrekiko berme-baltzu laguntzaileekin, helburu hauek lortzeko asmoz: eskabideak kudeatzea, dirulaguntzak ordaintzea eta eragiketak birfidantzatzea. Administrazioak bere gain hartuko du abalatutako enpresa txiki eta ertainen edo autonomoen hutsegite-arriskuaren zati bat.

Era berean, birfidantzamendu-hitzarmen berri bi formalizatuko dira Elkargi EBB sozietatearekin, Euskadiko ETEen inbertsio-proiektuen finantzaketari estaldura emateko. Hitzarmen horien bidez, Administrazioak bere gain hartuko luke abalatutako enpresa txiki eta ertainek edo autonomoek huts egiteko arriskuaren zati bat.

Aldi berean, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak urteak daramatza hitzarmenak sinatzen Euskadiko elkarrekiko berme-baltzuekin. Helburua baltzu horien funts propioak sendotzea izan da, eta horretarako, hornidura teknikoen funtsa handitu da; gaur egun, halako ezaugarriak dituen sozietate bakar batek soilik du egoitza Euskadin, alegia, Elkargi EBBk. Hartara, finantza-abalen eragiketak hobeto estalita egongo dira, kontuan hartuta finantza-abalen helburua gerta litezkeen zuzkidura eta kobraezinei aurre egitea dela; horrela, erakunde onuradunak bermeak emateko duen gaitasuna areagotuko da.

-Partaidetzako maileguak indartzea enpresentzako finantza-tresna eskuragarriak izan daitezen.

Luzaro Establecimiento Financiero de Crédito SA 1992ko urriaren 30ean eratu zen, eta haren oinarritzko helburua Euskadiko enpresa txiki eta ertainei partaidetzako mailegu nahiz kredituak ematea da. Mailegu mota horiek mendeko finantzaketa gisa hartuak dira, eta, beraz, sozietatearen funts propioen baliokideak dira. Maileguon helburu nagusia enpresa horiek aktibo finkoetan egiten dituzten inbertsioak finantzatzea da, eta oso amortizazio epe luzea izan ohi dute, normalean, hamar urtekoa, gutxieneko bost urteko gabealdiarekin.

Luzaro EFC SAren jarduera sustatu ahal izateko zenbait lankidetzahitzarmen gauzatu dira alderdien artean, eta, maileguen amortizazio-epe luzeen ondorioz, indarrean jarraitzen dute 2006ko abenduaren 20an, 2007ko urriaren 4an eta 2012ko ekainaren 12an sinatutakoek. 2006ko abendutik aurrera,

gainera, dirulaguntzak jasotzeko aukera eskaintzen da finantza-konsolidazio eta -berregituraketako maileguetan ere.

2020an finantza-lankidetzarako hitzarmen berri bat sinatu zen Luzaro EFC SArekin beste lau urterako, eta, horrela, jarraipena emango zaie Euskadiko ETEen finantzaketarako laguntza-neurriei.

Formalizatu dituen hitzarmen horietan guztietan, Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartu du partaidetzako maileguetan ordaindu ezinik geratutako kopuruaren ehuneko bat bere gain hartzeko, bai eta Luzaro EFC SAri une bakoitzean partaidetzako mailegu bakoitzaren eta dagozkien birfinantzaketa-maileguen artean dagoen diferentziala ordaintzeko ere. Era berean, maileguen abal-komisioaren % 50 diruz lagunduko da, mailegu horiek elkarrekiko berme-baltzu laguntzaile batek abalatzten dituenean.

Asmo horrekin, ekitaldi bakoitzean formalizatuko diren maileguentzako ordainketa-kreditu bat sartu eta kontabilizatu da aurrekontuan; ordainketa-kreditu horrek etorkizuneko konpromiso-kredituak biltzen ditu, maileguen bizialdi osoan dirulaguntzari aurre egiteko aurrekontu-oinarri bezala.

Dirulaguntza hori —goian aipatutako diferentzialaren parekoa izango dena— Luzaro EFC SAren eskura jarri beharko da, hitzarmen horietan ezarritakoa betez. Hortaz, aldez aurretik eta urtean bi aldiz (urteko seihileko bakoitzean) eskuratuko da, eta konturako ordainketatzat hartuko da, ondorengo behin betiko justifikazioa eta likidazioa egin bitartean.

-Genero-berdintasunerako planak sustatzea enpresetan, formalizatzen diren finantza-hitzarmenetan berariazko neurriak ezarriz

Berdintasun-arauek ezarritakoa betetzeko helburuarekin (hau da, Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legea; Enplegu eta lanaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera-berdintasuna bermatzeko presako neurriei buruzko martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretua; Berdintasun-planak eta horien erregistroa arautzen dituen urriaren 13ko 901/2020 Errege Dekretua; eta EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. plana), Eusko Jaurlaritzak genero-berdintasunerako planekin lotutako betebeharrak jakin batzuk sartuko ditu Elkargi EBB-rekin ekitaldi honetan formalizatu beharreko finantza-hitzarmenetan, eta, betebeharrak horien ordain gisa, laguntza-neurri gehigarriak ezarriko ditu, betiere arau- eta aurrekontu-esparruak hori egitea ahalbidetzen badu, batik bat eragiketetan administrazioak jarri beharreko bermeak handitzeari, eta Euskadiko ETEek finantzaketa eskuratzeko jasan behar duten finantza-kostua murrizteko dirulaguntzen zenbatekoari dagokienez.

Horrela, «Genero-berdintasunerako planak bultzatzea» egitasmoa jaso da berriz ere, Finantza Politikako Zuzendaritzak ekitaldi honetarako dituen helburu estrategikoen artean.

## -Euskadiko EGEF Plan Operatiboko komunikazio-ekintzak indartzea

Sailak kohesio-politikaren alorrean dituen eskumenen esparruan, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzari esleitu izan ohi zaio «*Euskal Autonomia Erkidegoan Europar Batasunaren esku-hartze programak eta ekimenak prestatzea, horien jarraipena egitea eta kontrolatzea, Europako eskualde-politikaren arloan*». Halaxe dio Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen ekainaren 13ko 168/2017 Dekretuaren 10.1 n) artikulua.

Funtzio horren testuinguruan kokatzen da, hain zuzen ere, 2007-2013ko aldirako EGEF funtsaren Esku-hartze Komunitarioko Programaren Komunikazio Planari ebaluazioa egiteko gomendioa, zeinak nabarmentzen baitu gazteei EGEF funtsen berri emateko premia, bereziki haiei zuzendutako jarduerak diseinatzuz. Helburu horri erantzunez egin izan da, azken bederatzi ekitaldietan, «Non ikusten duzu Europa Euskadin?» gazteei zuzendutako argazki-lehiaketa. Ekimen horrekin Europa hurbildu nahi zaie Euskadiko gazteei, Europak euren inguru hurbilena garatzen nola lagundu duen argazki batean irudikatzeko gonbita eginez. 2021ean ere lehiaketa horren edizio berri bat antolatzeko asmoa dago, agerian geratu baita neurri bikaina dela gobernu organo horretan komunikazioaren arloan egiten diren jarduerak indartzeko.

Plan honetan jasotako ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak bat datoz XII. legegintzaldirako 2020-2024 Gobernu Programarekin. Programa horrek hiru jarduketa-printzipio aipatzen ditu, besteak beste, honako hau: «Ekonomia eta enplegua suspertzea», COVID-19aren pandemiak sortutako ondorio ekonomiko eta sozial kaltegarriari erantzuteko; eta, horrez gain, autonomoei, mikroenpresei eta enpresa txiki eta ertainei laguntza ematea nabarmentzen du, COVID-19aren ondorioei aurre egiteko konpromiso nagusien artean.

### **IV. Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak**

Jarraian, planaren ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak zerrendatu dira saileko unitate organiko bakoitzaren arabera, eta zirkularraren 1. eranskineko 3. apartatuko a), b) eta c) alderdiak zehaztuz:



**FINANTZA POLITIKAKO ZUZENDARITZA**  
**6311 Programa**

**1. helburu estrategikoa: Borondatezko Gizarte Aurreikuspena lagundu eta sustatzea Euskadin**

**1. dirulaguntza-lerroa:** Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen Federazioarentzat, funtzionamendua eta bestelako sustapen-ekintza batzuk lantzeko.

a) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

*Xedea:* Euskadiko BGAE Federazioari laguntza ematea egiten dituen gizarte-aurreikuspen osagarriko jardueretan.

1. *ekintza:* Gizarte Aurreikuspen Osagarrien (GAO) inguruko ikastaro aurreratuak antolatzea BGAEetako gobernu-batzordeetako kideentzat.
2. *ekintza:* GAOak bultzatu eta lantzeko jardunaldiak antolatzea.
3. *ekintza:* Federazioari laguntza ematea GAOak sustatzeko egiten duen lanean.

b) AURREKONTU-KONPROMISOAK

*Zenbatekoa:* 18.000 € (hainbat helburu betetzeko baldintzarekin, eta egindako lanen justifikazioarekin). 06 6311 12 45499 002

c) SEKTORE HARTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

*Sektore hartzailea:* Euskadiko BGAE Federazioa

*Emateko prozedura:* Dirulaguntza izenduna, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak agindu bidez emana.

## 2. dirulaguntza-lerroa: \_Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren sustapena.

### A) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

1. *helburua*: Enplegu modalitateko lehentasunezko BGAE berriak eratzen laguntzea. 5/2012 Legea, otsailaren 23koa, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeena (BGAE), eta 252/2006 Dekretua, abenduaren 12koa, « Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen bidez bideraturiko gizarte-aurreikuspeneko sistema jakin batzuk ezartzeko laguntza ekonomikoak » arautzen dituena.

- 1. *ekintza*: Dirulaguntza ematea, enplegu-modalitateko lehentasunezko BGAEentzat ezarritako baldintzak betetzen dituzten gizarte-aurreikuspeneko sistema osagarriak eratzeko eta martxan jartzeko gastuei aurre egiteko. Baldintza horiek BGAEei buruzko otsailaren 23ko 5/2012 Legearen V. kapituluaren eta abenduaren 12ko 252/2006 Dekretuan ezartzen dira. Gastu horiek honako hauek izan daitezke, besteak beste: bazkideei informazioa emateko gastuak, sistema informatikoak, higiezinak, lansariak eta soldatak eta notario-gastuak.
- 2. *ekintza*: Gizarte-aurreikuspeneko sistema osagarriak eratu eta martxan jarri aurreko gastuetarako dirulaguntzak ematea. Gastu horiek, besteak beste, honako hauek egiteko izan daitezke: kanpoko aholkularitzen azterlan juridiko eta ekonomikoak, bestelako aukeren azterketak, kolektiboaren balioespenak, akordioak instrumentalizatzea, eta hedapen- zein sustapen-kanpainak.
- 3. *ekintza*: Lehentasunezko enplegurako Erakunde berrian edo Gizarte Aurreikuspeneko Plan berrian sartuko diren bazkide berriei gizarte-aurreikuspen osagarriko zuzeneko laguntza ematea.

2. *helburua*: Euskadiko gizarte-aurreikuspen osagarriaren garapena laguntzea.

- 1. *ekintza*: Gizarte-aurreikuspen osagarriari buruzko oinarrizko ikastaroa: Euskadiko BGAEen Federazioak betidanik prestatu eta eman izan du ikastaro hori; hala ere, 2020. urtetik aurrera bertan behera utzi zuen. Horren ondorioz, Gizarte Aurreikuspeneko Oinarrizko Ikastaroaren Eskuliburu berria egingo da, eta Oinarrizko Ikastaroa prestatu eta emango da, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeetako Gobernu Batzordeetako kide berriei eta hala eskatzen duten unibertsitateko ikasleei beharrezko gutxienezko prestakuntza emateko.
- 2. *ekintza*: Prestakuntza/ikerketarako beka edo laguntzen deialdia egitea.

- *3. ekintza:* Komunikazio-kanpainak eta gizartea sentsibilizatzeko kanpainak egitea, estaldura osagarri egoki eta nahikoak era daitezzen.
- *4. ekintza:* Bazkideei informazioa ematea, dagokien BGA Eren ondorioz 50 urte betetzen dituztenetik aurrera etorkizunean jasoko duten pentsioari buruz.
- *5. ekintza:* Ikastaroak eta hitzaldiak antolatzea bigarren hezkuntzako ikastetxeekin elkarlanean, ikasleak gizarte-aurreikuspen osagarriaren garrantziaz kontzientziatzeko, zerga-kontuen inguruan egiten ari diren bezala.

3. *helburua:* Gizarte-aurreikuspen osagarriaren gainean gure inguruan eta mundu osoan sortzen diren berrikuntzen berri izatea.

- *1. ekintza:* Berriz ere martxan jartzea Euskadiko gizarte-aurreikuspen osagarrien pentsioen behatokia, mundu mailan gai horri buruz argitaratzen diren eduki nabarmenenak jasotzeko eta sektoreari aldizkako *newsletter* bat bidaltzeko. Era berean, Behatokiak erantzuna emango die nazioarteko gizarte-aurreikuspenaren arloan Sailak egiten dituen eskaera zehatzei, arlo horretako politikak eta estrategiak lantzeko helburuarekin.

#### B) AURREKONTU-KONPROMISOAK

- *Zenbatekoa:* 30.000€                      06 6311 12 45499 003
- *Zenbatekoa:* 200.000€                06 6311 12 23899 004
- *Zenbatekoa:* 30.000€                      06 6311 12 23899 003

#### C) SEKTORE HARTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

*Sektore hartzailea:* Euskadiko BGA Eak, ikasleak eta graduondoko ikasleak, bigarren hezkuntzako ikasleak eta herritarrak, oro har.

- *Emateko prozedura:* abenduaren 12ko 252/2006 Dekretuan aurreikusten dena. Dekretu horrek hainbat laguntza ekonomiko arautzen ditu honako helburu honekin: borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen bidez prestatutako gizarte-aurreikuspen osagarriko sistema jakin batzuk ezartzea; laguntza horiek gaian eskumena duen sailburuordearen ebazpen bidez emango dira.
- *Emakida:* Beka-deialdiak eta publizitate-kanpainak egitea eta ikastaroak antolatzea Hezkuntza Sailarekin eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin koordinatuta.

- *Emakida*: Kanpoko kontratazioa.

**2. helburu estrategikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko aseguru-banatzaille tituludunak sustatzen eta garatzen laguntzea, prestakuntza bultzatuz.**

**1. dirulaguntza-lerroa:** Aseguru Bitartekarien Kontseiluari, prestakuntzarako.

a) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

*Xedea:* **Euskadiko Bitartekarien Kontseiluari laguntza ematea aseguru-banatzailleentzako prestakuntza-ikastaroak antolatzeko.**

1. *ekintza*: Hainbat prestakuntza-ikastaro antolatu eta ematea Bitartekarien Kontseiluaren eskutik.

b) AURREKONTU-KONPROMISOAK

*Zenbatekoa:* 10.000 euro

06 6311 12 45499 001

c) SEKTORE HARTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

*Sektore hartzailea:* Euskadiko aseguru-banatzailleak

*Emateko prozedura:* Dirulaguntza izenduna, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak agindu bidez emana.

**3. helburu estrategikoa:** ETEek eta banakako enpresaburuek finantziazioa eskuratzeko aukera sustatzea.

**1. dirulaguntza-lerroa:** Luzaro EFCk formalizatutako partaidetzako maileguen interes-tasak eta abal-komisioak laguntzen bidez ordaintzea, baita elkarrekiko berme-baltzu batek abalatutako maileguak ere, eta kobraezinak partzialki estaltzea partaidetzako mailegu guztietan.

a) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

*Xedea:* Luzaro EFC SAK partaidetzako maileguak ematea sustatzea, Euskadiko enpresa txiki eta ertainentzako zein banakako enpresaburuentzako finantzazio-tresna gehigarri gisa, baita Luzaro EFC SArene epe luzerako finantza-kontsolidaziorako maileguak ematea sustatzea ere.

1. *ekintza:* partaidetzako maileguak emateko eta finantza sendotzeko babes-programa sortzea. Ekintza zehatzak:

- Finantza-lankidetzaren hitzarmena kudeatzea.

*Adierazleak:*

Interes-tasen eta abal-komisioen dirulaguntzen sei ordainketa.

Hitzarmenetik eratorritako kobraezinengatiko lau ordainketa. Hiru hilez behin

b) AURREKONTU-KONPROMISOAK

*Zenbatekoa:*

21.0.1.06.12.0000.4.751.02.63110.001/F      650.000€

Aurreko ekitaldietan ETEei finantzaketa ematearen kostua murrizteko laguntza ematea Luzarori.

21.0.1.06.12.0000.4.751.02.63110.002/J 90.000€

Ekitaldi horretan ETEei finantzaketa ematearen kostua murrizteko laguntza ematea Luzarori.

21.0.1.06.12.0000.4.282.11.63110.001/J 500.000€  
Luzaro EFCK gauzatutako bermeak

c) SEKTORE HARTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

*Sektore hartzailea:* enpresa txiki eta ertainak eta banakako enpresaburuak.

*Emateko prozedura:* 2020ko abenduaren 23ko finantza-lankidetzarako hitzarmena, EAEko administrazioaren, finantza-erakundearen, elkarrekiko berme-baltzuen eta Luzaro EFC SAREN artean. Hitzarmen horrek 4 urteko epea izango du. 2021ean ez da beste hitzarmenik sinatzea aurreikusten.

**2. dirulaguntza-lerroa:** Kobraezinak estaltzea, eta elkarrekiko berme-baltzuetako hornidura teknikoaren funtsak indartzea.

b) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

*Xedea:* Elkarrekiko berme-baltzuen jardura indartzea, horiek baitira bertako kideentzat (enpresa txiki eta ertainentzat edo banakako enpresaburuentzat) finantzabideak errazten dituzten erakunde mutualistak.

*1. ekintza:* enpresa txiki eta ertainei zein banakako enpresaburuei finantzaketa kostuak murrizten laguntzea, erakunde horiek abalaturatuta dituzten arriskuen birfidantzamendua eginez. Ekintza zehatzak:

- 2021erako beste 3 birfidantzamendu-hitzarmen sinatzea.
- Hitzarmenak betetzea aldizkako likidazioak eginez.
- Hitzarmen berria formalizatzea helburu honekin: elkarrekiko berme-baltzuen hornidura teknikoan funtsa sendotzeko dirulaguntza kudeatzea.

*Adierazleak:*

3 birfidantzamendu-hitzarmen berri.

Hornidura teknikoak indartzeko hitzarmen bat.

Hitzarmenetik eratorritako kobraezinengatiko lau ordainketa, hiru hilean behin.

Hornidura teknikoan funtsa indartzeko ordainketa bat.

b) AURREKONTU-KONPROMISOAK

*Zenbatekoa:*

21.0.1.06.12.0000.4.751.02.12291.001/B 18.500.000

Hornidura teknikoan funtserako dirulaguntza

21.0.1.06.12.0000.4.282.11.63110.002/B 3.715.400€

Birfidantzamendu-hitzarmenak

c) SEKTORE HARTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

*Sektore hartzailea:* Elkarrekiko berme-baltzuak, baita ETEak eta banakako enpresaburuak ere.

*Emateko prozedura:* Birfidantzamenduko Hitzarmen Oinarritzko eta Osagarri berri bi Elkargi EBB sozietatearekin, 2021eko ekitaldian formalizatutako finantza-abaletarako.

Birfidantzamendu-hitzarmen berria Elkargi EBB sozietatearekin, dekretu honen esparruan: /2021 DEKRETUA, ENPRESA TXIKI ETA ERTAINAK, BANAKAKO ENPRESABURUAK ETA PROFESIONAL AUTONOMOAK FINANTZATZEKO 2021ERAKO

LAGUNTZA-PROGRAMA BAT ANTOLATZEN DUENA, COVID-19AREN ONDORIOZKO ERAGIN EKONOMIKOARI AURRE EGITEKO.

Elkargi EBB-ren hornidura teknikoaren funtsa indartzeko hitzarmen berria, elkarrekiko berme-baltzuen abal-jarduerari lotuta, eta batik batik ekitaldian zehar nazioarteko abal teknikoak formalizatzeari lotuta.

**3. dirulaguntza-lerroa:** Elkarrekiko berme-baltzu batek abalaturako mailegaren interes-tasa eta abal-komisioa ordaintzen laguntzea, dekretu honen esparruan: /2021 Dekretua, Enpresa txiki eta ertainak, banakako enpresaburuak eta profesional autonomoak finantzatzeko 2021erako laguntza-programa bat antolatzen duena, Covid-19aren ondoriozko eragin ekonomikoari aurre egiteko.

c) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

*Xedea:* Euskadiko enpresen finantzaketa-kostua murriztea, dekretu honen esparruan: /2021 Dekretua, Enpresa txiki eta ertainak, banakako enpresaburuak eta profesional autonomoak finantzatzeko 2021erako laguntza-programa bat antolatzen duena, Covid-19aren ondoriozko eragin ekonomikoari aurre egiteko.

*1. ekintza:* enpresa txiki eta ertainentzako eta banako enpresaburuentzako finantzaketa-kostua murrizteko laguntza. Ekintza zehatzak:

- Dekretu hau onartzea: /2021 Dekretua, Enpresa txiki eta ertainak, banakako enpresaburuak eta profesional autonomoak finantzatzeko 2021erako laguntza-programa bat antolatzen duena, Covid-19aren ondoriozko eragin ekonomikoari aurre egiteko.
- Finantza-lankidetzarako 14 hitzarmen berri formalizatzea 2021ean, eragiketen ordainketa-interesetarako dirulaguntzen ordainketa finantzatzeko eta kudeatzeko.



- Elkargi EBB sozietatearekin hitzarmen berri bat formalizatzea, abal-komisioko dirulaguntzak kudeatzeko.
- Hitzarmenak betetzea aldizkako likidazioak eginez.

*Adierazleak:*

14 hitzarmen berri finantza-erakundeekin  
Hitzarmen bat Elkargi EBB sozietatearekin  
Hileko ordainketa 1 egitea abal-komisioko dirulaguntzak likidatzeko  
Hileko ordainketa 1 egitea interesen dirulaguntza likidatzeko

b) AURREKONTU-KONPROMISOAK

*Zenbatekoa:*

21.0.1.06.12.0000.4.751.02.12291.002/B      8.700.176€  
ETEn finantzaketa-kostua murrizteko dirulaguntza - Abal-komisioko dirulaguntza  
21.0.1.06.12.0000.4.752.02.12291.001/B      5.000.000€  
ETEn finantzaketa-kostua murrizteko dirulaguntza. Interes-tasa

c) SEKTORE HARTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

*Sektore hartzailea:* Elkarrekiko berme-baltzuak, baita ETEak eta banakako enpresaburuak ere.

*Emateko prozedura:* Finantza-lankidetzarako hitzarmenak finantza-erakundeekin eta Elkargi EBB-rekin, /2021 Dekretuaren esparruan.

**4. helburu estrategikoa:** Genero-berdintasuneko planak sustatzea

**1. dirulaguntza-lerroa:** Fidantzamendu gehigarria ematea Luzaro EBBk formalizatutako maileguei eta elkarrekiko berme-baltzu batek formalizatutako abalei, enpresek genero-berdintasuneko planei buruzko baldintza jakin batzuk betetzen dituztenean.

d) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

*Xedea:* Genero-berdintasunerako planen ezarpena sustatzea Euskadiko ETEetan, honako hauetan xedatutakoa betetzeko: 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa; 6/2019 Errege Lege Dekretua, martxoaren 1ekoa, Enplegu eta lanaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko presako neurriena; eta EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana.

1. *ekintza:* ETEen eta banakako enpresaburuen finantzaketa-kostua murrizteko laguntza-programa. Ekintza zehatzak:

- Bi finantza-hitzarmen berri formalizatzea.
- Finantza-lankidetzarako hitzarmenak kudeatzea.

*Adierazleak:*

Finantza-lankidetzarako bi hitzarmen berri.

Finantza-lankidetzarako lau hitzarmen kudeatzea.

b) AURREKONTU-KONPROMISOAK

21.0.1.06.12.0000.4.282.11.63110.002/B      3.715.400€ (zabalgaria)

Birfidantzamendu-hitzarmenak

c) SEKTORE HARTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

*Sektore hartzailea:* enpresa txiki eta ertainak eta banakako enpresaburuak.

*Emateko prozedura:* ETEen eta banakako enpresaburuaren finantzaketa-kostua murrizteko Finantza Lankidetzarako Hitzarmen berriak.

**EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA**  
**61110 Programa**

**1. helburu estrategikoa:** *Europar Batasuneko eskualde mailako esku-hartze tresnak kudeatzea EAEn: Eskualde Garapenerako Europako Funtsak (EGEF) lagundutako eskualde-programen jarraipenaz, betearazpenaz eta kontrolaz arduratzea. Euskadiko EGEF Programa Operatiboko komunikazio-ekintzak indartzea.*

**1. dirulaguntza-lerroa:** «Non ikusten duzu Europa Euskadin?» argazki-lehiaketaren X. edizioa.

e) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

*Xedea:*

- EGEF funtsak eskualdearen garapenean nola esku hartzen duen ezagutaraztea EAeko gazteei. Autonomia-erkidago honen garapen ekonomikoa bultzatzeko egiten diren inbertsio, proiektu eta ekimenak finantzatzen ditu funts horrek.
- Euskadiko gazteengan interesa sortzea Europari buruzko alor eta gaietan, haientzako egokia den hizkera erabilia.
- Gazteen artean sare sozialen erabilera finkatzea, hedabide diren aldetik, Europaren berri eta Europako egituraren berri izan dezaten.

*1. ekintza:* argazki-lehiaketa antolatzea

*Adierazleak:*

Argazki-lehiaketa bat urtean

b) AURREKONTU-KONPROMISOAK

*Zenbatekoa:* 3.000 €

21.0.1.06.11.0000.4.453.01.61110.001/J

Finantzaketa: % 50 EGEF bidez

c) SEKTORE HARTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

*Sektore hartzailea:* 14 urtetik 25 urtera bitarteko gazteak.

*Emateko prozedura:* Lehiaketaren oinarri arautzaileak onesten eta lehiaketarako deialdia egiten duen agindu bidez; agindu hori Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak emango du.